

Alegiako pianistak

Juan Hilarion Jauregi Lizarribar

- Alegian jaio zen, 1902/10/21ean.
- Donostian hil zen, 1994/08/12an.
- Tolosako eskolapioetan ikasi zuen. Merkataritza-peritua zen.
- Alemanian ere egin zituen ikasketa batzuk.
- Pianista ona omen zen. Rubinstein konpositore eta pianista handiaren oso laguna izan zen, Arthur Donostian errefuxiatuta egon zenean.
- “Cementos Rezola”n egiten zuen lana, eta S. Ignazio klinikan ere bai.

Loturak:

<http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/albnz/91383891873049832532279/AR-PRE-04546.pdf>

http://es.wikipedia.org/wiki/Arthur_Rubinstein

(Iturriak: Jose Manuel Jauregi eta Irene Jauregi)

Zakarias Aranguren Maiz

- Abaltzisketan jaio zen, 1903/11/05ean.
- Donostian hil zen, 1977/04/16an.
- Aitarekin, Karlos Arangurenekin ikas izuen pianoa jotzen.
- Zenbaitetan organista lana ere egiten zuen.

Maria Purificación Jauregui Gorostiaga (Purita)

- Alegian jaio zen, 1913/12/03an.
- Tolosan hil zen, 2006/01/08an.
- Pianoa jotzen zuen.
- Alegiatar askori musika erakutsi zien, horien artean Jose Gastesiri, berak kontatzen duenez.

Desiderio Arrue Rekondo

- Alegian jaio zen, 1921/02/10ean.
- Donostian hil zen, 2007/01/18an.
- Merkataritzako ikasketak egin zituen Tolosan.
- Musika:
 - Eduardo Mokoroarekin ikasi zituen solfeoa eta pianoa.
 - Kantari ona, baxua, Joxe Gastesiren hitzetan. Alegiako koruan kantatzen zuen.
 - Alegiako eta beste herri askotako hiletetan kantatu zuen; zenbaitetan, Amezketako Jose Galarzarekin. Oiartzuna ere joaten zen kantatzera, Oñatibia zuzendari zela.
 - Eztarriko arazoengatik utzi egin behar izan zuen kantua.

Joxe Okiñena Morales

- Alegian jaio zen, 1924/04/02an.
- Pianoa jotzen zuen.

Maritxu Irazusta Gorostiaga

- Alegian jaio zen, 1926/02/22an.
- Alegian hil zen, 1974/07/29an.
- Patxi Urteagarekin ikasi zuen pianoa jotzen.
- Etxean jotzen zuen, batez ere, pianoa.

Iñaki Intxausti Arregi

- Legorretan jaioa zen, 1932/06/20an.
- Alegian hil zen, 2003/02/17an.
- Musika ikasketak Alegian egin zituen. Bere aita zenarekin ikasi zituen solfeoa eta pianoa. Hau horrela izanik, etxeko lagun zuten Zakarias Aranguren Maiz ere izan zuen aita gehien pianoa menperatzen irakatsi ziona.
- Beste alde batetik, aita soinu-jolea ere bazen, Donostian ikasi zuen Pepe Andoainen gidaritzapean. Peperen soinu-taldean jotzen zuen.
- Musika ibilbideari buruz, esan beharra dago txikitatik bere aita Rikardo eta bere anaia Germanekin txistu-taldean jotzen zuela danborra, bai Alegian bertan, Amezketan eta inguruko herrietako jaietan.
- Ogibidez dendaria zen.
- Musika zaletasuna, zalantzarik gabe, etxetik zetorkion, bereziki aitarengandik.
- Aita Rikardo organista eta txistularia zen. Anaia German txistularia eta konpositorea zen.
- Pepe Andoainek sortutako “Grupo Alai” taldean jotzen zuen.
(Iturria: Koldo Intxausti)

Itziar Zabala Ansorena

- Tolosan jaio zen, 1964/05/13an.
- Irakasle-Eskolako titulua eta Euskal Filologian lizentziatura ditu. Bigarren Hezkuntzako irakaslea da.
- Musika, solfeoa eta pianoa Alegian ikasi zituen, D. Bizenterekin, Ordiziako Mari Pazekin eta Loreto Fernandez Imazekin eta Donostiako kontserbatorioan egin zituen azterketak. Txistua Alegian ikasi zuen, Axun Orbegozarekin eta Mila Begiristainekin.
- Maitane Balerdirekin batera hurrei musika irakasten ere aritu zen Alegian.
- Etxean zegoen ikasteko zaletasunak eragin omen zion musika ikastera eta, nola ez, garai hartan Alegian zegoen musika-zaletasunak bidea erraztu zion.

Amaia Goikoetxea Orbegozo

- Alegian jaio zen, 1983/03/21ean.
- Ikus-entzunezko komunikazio ikasketak egin zituen.
- Kazetaritzan dihardu DVn eta Larramendi Bazkunean.
- Musika:
 - Alegiako mojekin (Axun Salaberriarekin) hasi zen musika ikasten.
 - Tolosako Musika Eskolan: solfeoa, harmonia, biolina eta pianoa ikasi zituen.
 - Isidro Larrañagarekin beste urtebetez ikasi zuen pianoa jotzen.

- o Alegiako elizako organista izana, larunbatetan eta zenbait ospakizunetan.
Juanjo Orbegozok lagundu zuen eginkizun horretan.
- o Txintxarri abesbatzako kidea izana, lanak denbora kendu zion arte.